

Mikel Goenaga

Kartzela Pastoralitzako kidea

Kartzelak, arazo zabal eta sakonen adierazpenak

■ Asko, maiz eta, garai batzuetan gehiago, gai honen inguruan mintzatzen gara. Argibide izan nahian, neure burua ordenatzen saiatuko naiz eta, horrela, zerbait ere eskeintzen:

a) Kartzela bera arazo bat da. Gizarteak sortzen du kartzela, defentsarako. Estatuaren baitan du bere izateko arrazoi, Estatuak berak, medio guztiez baliaturik, penalizatzeko zigortze bidearen bitartez, antolatuta egiten ditu 2 erantzunak: 1. Justiziari administratioko araudi osoarekin; hau da, *Ley de Enjuiciamiento Criminal, Código Penal, Ley General Penitenciaria* eta horren araudiarekin, detentziotik hasi eta penalizatzeko bidea amaitu arte. 2. Hauek praktikan jartzeko medioak ipinita daude: instituzio militarrek (poliziak) ikerketa lanetarako eta detentziarako, instituzio juridikoak ebaluaketa eta erabakietarako, instituzioak penitentiarioak (makrokartzelak, *prebentibo kartzelak*, kartzela estuktura murrituak dituzten instituzioak...) eta hauetan txertaturik, gizarte arloan lan egiten duten instituzioak (osasun arlokoak, gizarte laguntza, hezitzaile, e.a.) eta, azkenik, operatibitate gutxienekoak, presoek gizarteratze pausoko helburu dituzten instituzioak.

Honek guztiak gizarteratze suposatzen dion milardoen kopurua ikaragarria da. Estatuak duen enpleatu kopurua arlo honetan Armadak duenarekin konpara daiteke.

b) Zergatiak. Egiaren zati bat alde aurretik esan beharra dago (Estatuak erabiltzen duena), delitu ezberdinak egiten dituztenengandik defendatu nahi gaituela alegia. Baina, goazen zergatieta. Orokorri bi ikusten ditut (Estatuan diren 40.000tik gorako preso kopuruari begira).

1. Gizarte arazoengatik:

- Eskolako porrotengatik: %17 analafabeto osoak dira, %31 ez dira irakurtzeko eta idazkeraz komunikatzeko gauza. Gehienek, %80tik 90era, 13-16 urte bitartean ikasketak abandonatu zituzten. %2k bakarrik dauzkate amaituta ikasketak normalizatuak.

- Langabezia, gehiengoaren arazoa da. %75ek ez dute inongo kualifikaziorik.

- Droga-menpekotasuna eta gaisotasunak: %60tik gora drogaren menpe aurki-

tzen dira; %5etik oso gora jota hiesa dute, eta minusbaldia psikiko arazoak dituztenen kopurua larriki gora doa.

- Arrazakeria: Estatuak, barne diren atzerritarren aurrean, bere burua defendatzeko sortzen dituen aurkako legeak. Atzerritar preso kopurua %15etik gorako etengabea ikusten da.

- Marjinazioa, familia-desoreka, estuktura pertsonal eskasia dutenak, e.a. dira beste arazo multzoa. Arazo ezberdinak pilaturik dituztenak asko dira (beraiengan erreparatzea kostatzen zaigu).

- Diru errazterako diren bide ilegalak, mafiak, kontrabando, falsifikazioak, e.a.

2. Politika-ideologi-baloreen ondorioz diren arazoengatik:

Puntu honetan azaltzen direnak, nagusiki, Euskal Herrian kokaturik daude, historikoki datozkigunak dira eta arrazoi ezberdinengatik bizi dugun gatazka honek barruan ditu Estatuarekin bereziki arazoak, eta gure artean ere modu ezberdinetan baloratua dago.

- ETArekin modu ezberdinetan parte hartu dutenak arrazoi ideologikoak direla medio.

- Insumisioaren aldeko apustua egin dutenak.

- Ekologiaren aldeko zerbait postura hartu dituztenak (litoiz, e.a.).

Arazo hauek barne. Estatuak bere legegaitza gaitzitu du funtsean, marko juridiko, legalitate eta makineria pisu horren gain beste zerbait neurri eta ekintza erabiltzen. Erasoak zabalduak, familia eta inguruko kontrako neurriak ezarri ditu:

- Sakabanaketak (preso eta senideentzako presio-bideak gehituaz). Ondorioak 7 hilak dira.

- Erberteratuekin Estatu arteko mugak legalak aldatu eta gaitzituak.

- Kartzeletan saiatu dituen fisikoki naiz psikikoki suntsitze nahiak (kolpatuak, isolatuak eta oro har giza eskubideen erreperturik eza, e.a.).

- Euskal preso politikoen %6 ez dago egun Euskal Herriko espetxeetan.

- Detentzio bidetik gerora tortura erabiltzea... e.a.

- Estatuak eta instituzioek izan dituzten erantzukizunak argitzea oztopatu eta auzibidei eragozpenak jarri dizkie.

- "Hutsegite bidezko atxilotetako". (Besteak adierazten luzeegi litzatekeelako, puntu).

d) Arazo zabal eta sakonak direla eta Euskal Herrian diren zerbait instituzio, erakunde, talde eta mugimendu akordioetara iritsi dira azken urteotan:

- Eusko Legebiltzarrek, 1996ko irailaren 13 hartu zuen akordioa.

- Eusko Legebiltzarrek, 1995eko abenduaren 26an hartu zuen akordioa.

- Europako Parlamentuak 1996ko irailaren 17an hartu zuen Giza Eskubideak Europako Batasunean errespetatzeaz buruzko ebazpena edo resoluzioa.

- Maroñoko Taldeek 1996ko urriaren 12an hartu zuen akordioa (Bakea Orain, Elkarriz, Gernika Batzordea, Gestorak, Herria 2000 Eliza eta Senideak barne).

- ELA-LABek presoak Euskal Herriko kartzeletara ekartzearen biabiltaterako zerbait ohar eta ikerketa eskeni zituzten.

- 2. graduak dauden insumisio presoek kolektiboak Errepresioa eta sakabanaketari buruz.

- Euskal Herriko Kristau Talde Herritarrek eta Apaizen Koordinakundeak 1997ko otsailaren 10ean egin zuten Zuzenbidezko gizarteratze aldeko komunikatua.

- Eta beste hainbat; zerbait mobilizazio, eztabaida publiko, komunikabideetan, e.a. Azkenetako aportazioa, Hego Euskal Herriko gotzainek izenpetzen duten *Espetxetikoko Pastoralitzaren argibideak* bereziki eliza barneko dokumentua da, barruko antolatketan dagoen *Espetxetikoko Pastoralitza Sailean bultzatzeko* asmoak eta norabideak. Testuinguru honetatik atera da, noski, gaur egun bizi ditugun *espektatibak* direla eta, baina, berez, Elizak duen erantzukizunari espeske arlo honetan erantzun teorikoa ematen saiatzen da. Gaur egungo egoeran, neurri mugatu eta eskasian egiten du bere lana.

e) Gogoetarako zerbait puntu, eztabaidetarako (garen gizarteratze dagozkionak).

- (2. puntuan aipatuta da Estatuak erabiltzen duen egi zaita, delituetatik defendatzen gaituela alegia) baina beste egi zati bat bada, Estatuan lapurtutako ondasunetatik barruan daudenek %3aren arduraduta. Preso kopuru handi bat arra-

zoi honengatik dago, baina gehien lapurtzen dutenak ez dira kartzelatik pasatzen. Norengandik defendatzen gaituzte? Zertarako kartzelak, arazoan iturriak ez badira konponbidean? Langabezia, eskolako porrota, eta benetako arazoak?

- Presoek, askok, *errua* edo kulpabilitate sentimentua sakonean bizi dute. Gure gizarteratze ezartzen die geure burua xurituaz, geurek errugabeak ikusiz txibito espiatorio-rena eginaz. Zer funtzio betetzen du kartzelak?

- Asko mintzatzen da, bai kartzeletan eta kanpo, justiziaren sinesgarritasun eskasiaz, eta objektibotasun oinarriak kolokan dira zerbait kasuren aurrean: Estatu kolpea, dibisek ilegaltasunaz Estatu pobretzen dutela, Filesa, finantzaketa ilegalak, GAL, irregulartasunak... bukazinezko lista. Kartzeletan sartzen direnak batzuk dira, eta besteak?

- Bi arazo multzo aipatuai begira, gizarteratze egoeraren ispluaren aurrean aurkitzen gara; zergatiari erantzun gabe, arazoak pasatu besterik ez dugu egiten. Legaltasunarekin ez da bukatzen arazoa, konponketarako bidearen hasiera gerta daiteke. Presoen euskalerritarrekin ez du arazo amaituko, arazoaren sustraia ez bada behar bezala lantzen. Gizarte honek konpontzen ez dakiena estaltzeko, frenatzeko, du kartzela?

- Askotan entzun dugu Barne Ministerioa dioena: «banakako printzipio» aprobaturiko legean dagoela (*Ley Organica General Penitenciaria*, Gobernuak aprobaturiko duen Kode Penal Berria 96-11-9an) baina Kode Penala egoeratik oso urruti dago eta borondate politikoa urrutitu oraindik, Espainako Konstituzioa bera gaitzitu baitu, dagoen egoera anti-konstituzionala bihurtu. Estatuak legea ez betetzea legez-tatua du: adibidea besterik ez da, FIES regimena (*Fichero de Internos de Especial seguimiento*) reglamentu mailaraino igo du Auzitegi Konstituzionalak konstituzio mailan onartu gabe. Kartzeletan funtsean FIE-Sak aplikatzen dira.

Beste puntu asko dira zintzilik oraindik, kezka garriak denontzat benetan. Saiatu naiz batzuk azaltzen eta izenburuari irakitasunaz edukia ematen. Onerako izan dadila. ■

Txillardegia

Idazlea

'Lendacari bila'

■ Ba omen doa Ardanza. Eia hurrengo Lehendakariaren bilaketa hasia da jadanik.

Bi alderdi autonomiko nagusien *tzelonebreak* zabalduak dira bazterretan; nahiz diximulo gaitzetan. PSOEn hautagaia den Rosa Díez andereak ez daki euskaraz; eta PNVak aurkezten duen Juan Jose Ibarretxe jaunak ere ez. Bapoi! Aurrera goazi!

Baina alferrik litzateke hemen prediku abertzaleak egitea. Euskaltzaleok ongi dakigu euskara hauteskunde garairako txorimaloa besterik ez dela gehiegitan. Zertarako denbora galduko?

Lendacari erdaduna hautatzea, *legala* al da? Hona gaurko ene galdera bakarra. Alegia, PNVak eta PSOEek errespetatzen eta errespetarazten omen duten *legalidad autonómica* horretan, Lehendakari lendacari (con ce) proposatzea, are aukeratzea ere, legetasunaren araberakoa al da?

Irakur dezagun 1982ko 10 Legea, Azararen 24koa, *Ley Básica de Normalización del uso del Euskera* delakoa. Hona diona: «*todo ciudadano*» tiene derecho al uso del euskera y del castellano en las relaciones con la Administración Autónoma» (Hitzazurrean).

Zehazkiago (Art. 5, 2a): «*tiene derecho a*

relacionarse en euskera o en castellano, oralmente y/o por escrito, con la Administración y con cualquier organismo o Entidad radicado en la Comunidad Autónoma.

Jaurilartzarekin (eta, hortaz, Jaurilartzako Lehendakariarekin ere bai) harremana euskaraz izateko eskubidea dugu.

Areago (Art. 6.1): «*Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a usar tanto el euskera como el castellano... y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.*

Takillaren atzean dagoen funtzionariari hau eska badakioke, zergatik ez Lehendakariari?

Lege horretantxe irakur daiteke beste

hau: «se tomarán las medidas oportunas para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho.» (Art. 6.1)

15 urte pasata gero, aski ez da. Zenbat urtez itxaron beharko dugu? beste 25 urte edo? beste 100 urtez?

Are okerrago: orain arteko Lehendakariak euskaraz bazekien. Hurrengoak ez. Nola sinetsiko aurrera goazetik?

Bilboko Apezpikuak euskaraz ez daki, Bilboko Alkateak ere ez, Arartekoak gauza bera. Noraino dira izendapen horiek guztiok legetasunaren araberakoa?

Badiurdi garaiak dugula euskaltzaleok «aski» esateko. ■